



Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal (*)

Papua: trekkinga neolitikora

ORAINGOAN ere gure ibilaldiaren helburua ez da urrutiko mendien gailurra, milaka metro beherago urruneko paisaia ezezagunak oinez zeharkatuz, bizilagun eta bizimodu bitxiak ezagutzea baizik. Helburu hau Papuako mendien goi ibarretan bete dugu. Bertan ehunka talde etniko bizi dira isolaturik, zibilizazio modernoarekin oraindik ia kontakturik izan gabe eta, beraz, aro neolitikoa-ren bizimoduari eutsiz. Isolatamendu honen arrazoia Papuako paisaia basatia izan da, Jurassic Park eta King Kong

filmetakoa gisakoa: mendikate bertikal eta erraldoiak, arroila sakonak eta ur lasterreko ibaiak, guztia oihan basatiez jantzia eta langar iraunkorrez estalia. Horregatik, Papua azken muga da, oraina eta iraganaren arteko azken muga. Muga hori zeharkatu nahi izan dugu, Baliem haranaren hegoaldeko Dani etniakoan lurraldean trekking-a eginez.



■ Herrixka dania mendiko paisaian




■ Belaunak eta izterrak mindu zaizkigu Wasegalep herritik Baliem ibairaino 900 metroko desnibela jaistean

GINEA BERRIA munduko bigarren uharterik handiena da, Groenlandiaren ondoren. Asiako hego-ekialdearen muturrean dago, Australiaren iparraldean. Mapa politikoaren arabera, lerro zuzen batek bi naziotan banatzen du uhartea: mendebaldea (Papua) Indonesiak okupatzen eta kolonizatzen du egun; ekialdea (Papua Ginea Berria) herrialde independentea da 1975az geroztik. Mapa fisikoaren arabera, uharteak txori baten itxura du eta beronen bizkarrezurra balitz bezala, 1600 kilometroko mendilerro batek zeharkatzen du mendebaldetik (burutik) ekialdera (isatsera), zenbait lekutan ia 5000 metroko garaiera hartzen duelarik. Mendilerro honi esker uhartearen iparraldeak eta hegoaldeak barra-barra jasotzen dute euria hego-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko monzoi garaietan. Beraz, mendi gailurretako glaziarretan izan ezik, klima oso beroa eta hezea da ia lurralde osoan.

Ondorioz, oihanak eta basoak 4000 metroko garaieraraino heltzen dira. Honi guztiari, mendietako arroila erraldoiak eta beheko lurraldeetako oihan trinkoak eta zingiratsuak gehitzen bazaizkio, uhartea zeharkaezin bihurtzen da. Gainera, bertako tribuen izaera borrokalaria eta basatia zela eta, Ginea Berria uharte iluna izan da betidanik, bidaiariak bertara hurbiltzea saihestu dutelarik. Ondorioz, XX. mendera arte ez zen mapetan agertu eta, gaur egun, badira oraindik ere esploratu gabeko txokoak. Horregatik, Papuan oraindik posible da animalia eta landare espezie ezezagunak aurkitzea. Ehundaka talde etniko desberdin bizi omen dira, batzuk "gizarte modernoarekin" kontakturik izan

(*) Mila Gallastegi Gerrikabeitia (Eibar, 1972) eta Asier Aranzabal Maiztegi (Eibar, 1971) bikotea dira eta elkarrekin ikasi zuten mendia maitatzen. Lehendabizi Eibar inguruko nahiz Euskal Herriko mendietan eta beranduago Pirinio eta Kantauriar mendilerroetan. Eztei-bidaia osoa Nepaleko Khumbu ibarrean eman zuten sherpen herrixka batetik bestera Himalayako mendi eta glaziar erraldoien artean. Orduan konturatu ziren mendi biluziaren ordez, gustukoago zutela gizakia eta mendia edota gizakia eta natura elkarrekin ezagutzea. Harrezkero binomio horren bila ibili dira munduan zehar, oinez edota naturak eskainitako garraibideak erabiliz (kanoak, zaldiak,...). Honela paisaia ikusgarriak eta gizarte bitxiak hurbiletik ezagutu ahal izan dituzte eta, bertan jasotako irudi eta esperientziak ikus-entzunezkoak eskaintzen dituzte. asiermila@gmail.com

MILA y ASIER nos guían en esta ocasión con sus descripciones e imágenes, en un viaje a través del tiempo para conocer de primera mano cómo viven aún en nuestros días las ancestrales tribus de Papúa Nueva Guinea. En un itinerario por las montañas de este país que ocupa la mitad oriental de la isla de Nueva Guinea, tan alejada -en todos los sentidos- de la seguridad de nuestra civilización occidental, tomaremos contacto con algunos de los grupos humanos de aquellas tierras (los Dani, Lani, Yali...), en cierto modo anclados todavía en el neolítico e irremisiblemente condenados a desaparecer ante el avance imparable y cada vez más acelerado de la modernidad y el "progreso".



MAPAS NONDIK

■ Etxeak tximiniarik ez duenez, teiltuaren lasto arteik ateratzen da poliki-poliki kea, barrualdea bero mantentzen delarik

gabekoak oraindik: isolaturik bizi diren talde etnikoen kopururik handiena duen munduko bigarren herrialdea omen da, Brasil ondoren. Talde hauetako askok inoiz ez dute bata bestearen berri izan, Papuaren orografia konplexuagatik batez ere, baina baita bere izaera borrokalariagatik ere, herriak asko urruntzea arriskutsua izan delako duela gutxira arte.

Mendebaldeko Papuako mendilerroaren erdigunean, Jayawijaya mendiek inguratuta 60 kilometroko luzera eta 15 kilometroko zabalera duen lautada handia zabaltzen da: Baliem harana da. Haran zabal honen inguruan hiru talde bitxi bizi dira: ipar-mendebaldean Lani etniakoak, ibarraren erdigunean eta inguruko mendietan Dani etniakoak, eta hego-mendebaldeko mendien artean, berriz, Yali etniakoak. Haran hau 1938. urtean aurkitu zuen Richard Archbold estatubatuarrek hidrohegazkin batetik Dani, Lani eta Yali etnikoen etxolak ikusi zituenean, mendietako baso eta langar artean. National Geographic erakundeak 1941. urtean aurkikuntza hau argitaratu zuen arren, gizon zuria ez zen bertan barneratu 1954. urtera arte. Oraingoan, Belen, Mikel, Iratxe, Mila eta Asier ibarraren hego-mendebaldean ibiliko gara sei egunez, 1500 eta 3000 metroko garaieran gora eta behera, Mugwi eta Baliem ibaiek osatzen duten ibar, arroila eta mendietan zehar, Dani etnikoen herrixka batetik bestera.


Wamenan eman diogu hasiera abentura honi, planeta erdia hegazkinez zeharkatu ondoren. Wamena holandarrek sortu zuten 1958. urtean eta haraneko herri

administratiboa da. Bertara hegazkinez bakarrik hel daiteke eta, mendi artean sartu aurretik, azken gunea da beharrezko guztiaz hornitzeko. Lehenago egon garen lekuen antz gutxi du Wamenak. Papuarren aurpegiara oso arrotza egiten zaigu eta haien begirada sakonak eta hagin gorriek beldurra ere sentiarazten digute: sudur handia, masailalbo hezurtsua eta altua, azal beltzarana eta ile gutxi eta kizkurtua. Etengabe betel-gaztaina mastekatzegatik gorritzen zaizkie haginak. Oro har, Australiako aborigenen antza dute. Etxeek uralitazko teiltua izaten dute eta ia edonork darama gurearen antzeko janzkera, oinetakoak izan ezik, gehienak ortozik baitabilza. Zakila

estaltzeko koteka (kalabazin zatia) baino besterik ez daraman bat edo beste ere ikusi dugu, baita tradizioa modernitatearekin konbinatzen jakin izan duenik ere: koteka eta gabardina, edo koteka eta gomazko katiuskak... Java eta Sumatrako indonesiar etorkinek luxuzko automobilak eta motozikleta zatatsua gidatzen dituzke. Hauek dute Wamenako administrazioaren eta negozioen erabateko kontrola. Irudi hauek salbu, interes gabeko herria da Wamena. Gainera, oso zikin dago guztia. Nazkagarriena estolda legez kale ertzean zanga irekian dagoen ur zikina izaten da.

Wamenan Dixon ezagutu dugu, ibilaldirako kontratatutako gidaria. Ez da gizon handia, baina gorpuzkera sendoa du. Azala beltzarana dauka, eguzkiak zaildua, eta ez du gantz arrastorik erakusten. Bere muskuluak zuntza besterik ez dira: hanketako koadrizeps nahiz gihar bikiek Papuako oihan eta mendietan zehar kilometroak eta kilometroak eginiko gizona erakusten dute. Papuako *Cocodrilo Dundee* baten aurrean gaudela uste izan dugu guztiok, filmeko protagonistak bezala soinean kapela eta aiztoa ere daramatza eta. Bere ogibidea gidari lana da, ez bakarrik gu bezalako turisten gidari, baita animalia eta landare espezie eta etnia ezezagunen bila dabilzan zientzialariena ere. Bere itxuragatik eta astiro hitz egiteko duen moduagatik ziurtasuna eta lasaitasuna transmititzen duen gizona da.

■ Hitugi herriko dania Muwgi erreka atzean duela berriz mantentzen delarik





ARGAZKIA: MIKEL BARRIUSO

■ *Daniarren oinak gureak baino motzagoak baina aski zabalago eta lodiagoak dira. Gureek ez bezala, oratzeko gaitasuna dute*

1. eguna: Sogokmo-Yuarima.

Goizeko 8:30ean lurrerotako bi ibilgailu ditugu hotelaren sarreran zain. Auto batean Dixon eta gu bostok sartu gara eta bestean zamaketariak. Ordu erdiz bidaiatu dugu autoz hegoalderantz, errepidea bukatu den arte. Sogokmo izeneko leku honetan ezagutu ditugu zamaketari guztiak: guztira hamabi zamaketari, hots, turista bakoitzeko 2,4. Gehiegitxo ezta? Lani etniako Wenda eta Cogoyo klanekoak dira guztiak: Martinus (zaharrena), Turin (sukaldaria), Elanius (gitarraduna), Usman, Akimanan, Jitimin, Kotimin, Penius, Lendi, Jortius, Yules eta Cogoya. Sei egunetan beharko dugun guztiak –gure ekipajea barne– hainbat zakutotan banatu dute. Bakoitzak berea bizkarrean hartu eta, kantuen artean, ibilaldiari ekin diogu. Zamaketariaren alaitasuna ikusita, txundituta baina aldi berean pozik goaz. Baliem ibaiaren ondoan lurrerotako pista bati jarraika hegoalderantz goazela, berehala geldiarazi gaituzte militarren destakamentu batean. Pasaporteak eta, batez ere, gure motxilak arakutzen denbora luzez ari direla eta kezkatzen hasiak gara. Dixon, ordea, lasai dago: ohiko tramitea dela diosku.

Militarrak utzi eta Kurima izeneko lekuan lehen aldiz zeharkatu dugu Baliem ibaia zubi eseki baten gainetik. Ibaiaren alde batean eta bestean zementuzko egiturari lotuta, kableez eta berauen gaineko ohol zatiez eratuta dago. Segurua dirudien arren, haren gainean goazela nabarmen mugitzen denez, banan-banan zeharkatzea erabaki dugu. Oraingoan ere ibaiaren ondoan goaz hegoalderantz Seyma izeneko herrixkaraino. Hemen ibaia alde batera utzi eta mendebalderantz abiatuta mendiaren magalean gora hasi gara. Bidea oso nabaria ez bada ere, aldapatsua da. Hala ere, zamaketariak, beti gure aurretik, ez dute neke keinurik bat ere erakusten. Altuera irabazi ahala paisaiak handitasuna hartzen du. Ipar-ekialderantz, Baliem

ibaiaren norabidean, mendi gandorrak elkarretatik banandu eta haran zabalean hiltzen direla dirudi. Gainontzeko norabideetan paisaia erabat berdea eta malkartsua da. Ibaia 1600 metro tara dago gutxi gorabehera. Honen ondotik, 2200 metrotaraino, mendiaren magalean landaretza, zuhaitz sakabanatuak eta baratzeak ikus daitezke. Danien herrixkak garaiera tarte honetan kokatzen dira. Handik gora oihana gailentzen da. Goienean, ohiko haitzezko mendi tontorrik ezin ikus dezakegu, gailurrak oihanez eta lainoiez estalita baitaude. Aurreraxeago, Mugwi erreka eta beraren ibarra agertu zaizkigu begi bistara. Mendebaldetik datorren erreka honek Baliem ibaiari isurtzen dizkio txokolatearen koloreko urak.

Bidean lurralde honetako lehen biztanleekin topo egin dugu. Lehendabizi mendian behera datorren gizon talde batekin eta beranduago belarra jasotzen dabilen familia batekin. Gizonezko batzuk galtza eta kamisetarekin datoz, beste batzuk ordea danien berezko janzerarekin, biluzik alegia. Zakila da estaltzen duten gorputzaren zati bakarra, kukurutxoaren itxura duen kalabazin zatiarekin. Koteka du izena. 30-50 zentimetroko luzera izan ohi du, haritxo batekin gerriaren inguruan lotu eta tente eusten delarik. Barrabilak ordea estaldurarik gabe daramatzate. Guretzat horren bitxia da, ezen beroni baino ez baitiogu jaramonik egiten, isiltasunean eta disimuluan noski. Emakumeak belaunetaraino heltzen diren zuntzezko gonak janzen dituzte. Gerritik gora aldiz biluzik doaz.

Bidean gora goazela ekialderantz doan beste bide zabalago batekin topo egin dugu. Honi jarraituko diogu goraka, Ugemeko eta Hitugiko biztanleen baratzeen artean. Herrixka hauetara heldu aurretik, zamaketariak atsedean hartu eta oihuka eta saltoka hasi dira. Dixonek dioskunez, oihura da atzeritarren lurraldean sartzerakoan horrelako oihuk egitea, norberaren presentzia adierazteko eta bakean doazela adierazteko. Jakina da duela gutxira arte eskualde hauetako herritarrek etengabe guda egiten bizi zirela. Oihuk eta kantuak horren alaitsuak dira, ezen gu ere koroaren partaide bihurtu baikara. 13:30ean heldu gara Hitugi herrira, altuerarik garaienera: 2200 m. Bertako herritar asko harrera egitera etorri zaizkigu, batez ere umeak. Munduan beste inon ez gara honen arrotz sentitu. Danien eta gure itxura hain dira desberdinak...

Denboraldi luzea eman dugu hemen, paisaiaz disfrutatzen, argazkiak ateratzen eta atsedean hartzen. Mendiaren magal aldapatsuan irekitako bideari jarraituz eta altuera galduz Mugwi erreka ertzean dagoen Yuarima (1860 m) herrira jaitsi gara ordu eta erdiz ibili ondoren.



■ *Emakume dani gaztea*

■ *Sesep herriaren ondoan bi gizon atsedena hartzen*

Mugwi errearen ibarra estua da. Iparraldeko magal aldapatsuan soroak baino ez dira ikusten. Patata gozoa (*batata*) landatzen dute batez ere daniek, baita lekak, azak, tipulak, berakatzak... ere. Landaretza handiko lurralde malkartsu honetan soroak egiteko, zuhaitzak bota eta sua ematen diote lurrari. Etxe inguruan berriz banana zuhaitzak eta tabakoa landatzen dute. Lanabesak ere oso arkaikoak dituzte: harri arokoak, alajaina! Aizkorak, aitzoak eta aitzurak, zorrozitutako harriari zuntzez lotutako egurrezko kirtendunak, etxean egindakoak noski. Oso okela gutxi jaten duten arren, etxeko abere nagusia txerria da. Klanaren aberastasunaren adierazgarri da txerri kopurua. Zeremonietan eta horrelakoetan akabatzen dituzte hazitako urdeak.



■ Gazte ehiztaria

Yuarima, danien edozein herrixkaren gisa, perretxiko baten antza duten lastozko hamar bat etxolak osatzen dute. Beroa ondo mantentze aldera, leihorik ez dute. Egunez giroa epela den arren, lurralde garaietan egoteagatik arrastian tenperaturak behera egiten du. Izan ere, hotzez dardarka ikusi ditugu gizonezko daniak beren burua besarkatuta. Giro beroagatik ez bada, zergatik doaz biluzik orduan? Yuarimako gizon talde batek hango etxetxoak erakutsi dizkigu. Ate txikitxo batetik erabat makurtuta sartu behar izan dugu barruko iluntasunera. Lurzorutik metro bateko garaieran eraikitako solairuan lo egiten dutela dioskute. Azpian sua egin ohi dute. Etxeak tximiniarik ez duenez, teilatuaren lasto artetik ateratzen da poliki-poliki kea, barrualdea bero mantentzen duelarik. Ohitura honek ez die daniei mesede handirik egiten, asko hiltzen baitira gazterik biriketako gaixotasunengatik. Gizonezkoek eta emakumezkoek etxe desberdinetan banandurik lo egiten dutela ere dioskute. Txerriek ere etxe barruan lo egiten dute, taldearen partaide baitira.

Guri, ordea, irakaslearen etxean lo egitea eskaini digute. Oholaz egina eta solairu bakarrekoa den arren, gure etxeen modura eraikita dago. Motxilak bertan utzi eta beste ezertarako denbora asko ez dugu izan, Yuarimako herritar guztiak guri begira ditugulako. Aldiz, oso lotsati agertu dira haiekin hitz egiten saiatu garenean. Hortaz, umeekin gure gazte denborako jolasetan jardutea erabaki dugu. Gurasoak algara batean, beren lekuan eserita, gure presentziarekin ondo pasatzen ari direla dirudi. Gizonezko talde batek bere etxolatik behatzen gaitu, baita guk haiek ere. Kotekak ez ezik, sudurzuloko piercingak ere atentzioa eman digu, hamar bat zentimetroko txerri letaginak zuloa zeharkatzen duelako alde batetik bestera. Estetika mota hau edertasuna sortzeko edo, kontrara, aurkariak izutzeko ote den galdetzen diogu geure buruari.

■ Danien dieta, orografia eta bizimodua direla eta, lodikoterik ez dago: guztiak dira argalak eta gihartsuak

2. eguna: Yuarima-Sekama-Sesep-Syokosimo-Wuserem.

Goizaldeko behe-lainoak inguruko mendien magaletan gora eta lastozko teilatuetan zeharreko keak giro misteriozua ematen diote inguruneari. Ibilaldia hasi (8:30) eta berehala, bi enbor labainkorrez eraikitako zubiaren gainetik pasatu gara Mugwi ibaiaren beste aldera, labainka eta ikaturik, azpiko ura oso azkar baitoa. Ibilaldiaren lehen ordu erdia ibaiari jarraika egin dugu ur ertzetik. Ondoren, magalean gora zuzen-zuzen hartu dugu. Oso labainkor dago, gau osoa euria ari izan baitu. Aldapa hain da malkartsua, ezen altuera irabazi ahala, bertigoa ere sentitu baitugu. 400 bat metroko desnibela gainditu dugunean, gizon dani batekin topo egin dugu (2300 m). Egur bila datorrela diosku. Berarekin zigarro bat erre eta geure bideari berrekin diogu. Bidezidor estu eta labainkorrean goaz, paisaiari so egiteko gelditu beharra dagoela. Horren da arriskutsua, ezen zamaketariak ez baitira gurekin etorri. Atzoko bidetik atzera Hitugirantz doazela ikusten dugu leku garai honetatik. Dixonek dioskunez, Hitugitik Mugwi errekarra jaitsi dira eta Syokosimo herrixkan elkartuko gara haiekin. 11:30ean Sekama herrixkara heldu gara eta ordu laurden beranduago Sesep (2150 m) herritik pasatu gara, erabat nahigabetuak: makila eskuan atso bat makur-makur eginda baratzean lanean dabilela eskua jaso du gu agurtzeko; atzamarrak gabeko eskua da; ikaragarria benetan! Dixonen esanetan danien ohitura omen da emakumeei aita edo neba hiltzen zaienean atzamarrak moztea. Atzamar zatiak hildakoaren gorpuarekin batera erre egiten dira, sugarrek hildakoaren espiritua eraman dezaten. Ezin izan dugu geure harridura eta atsekabea erakusteari eutsi, oraingoan ere emakumeak baitira ohitura basati hauetan gehien sufritzen dutenak. Hemendik aurrera bidean aurkituko ditugun emakumeen eskuei arretaz begiratu diegu: emakume gehienek bi hatz mutur falta dute gutxienez.

Garaiera azkar galdu dugu, ur jauzi politen artean, Syokosimorako (1700 m) bidean. Mugwi errearen ur ertzeko herrixka honetan (12:30) Turin sukaldariak prestatutakoa bazkaldu ondoren, herriko baratzeak zeharkatu eta mendiaren magalean gora, berriz ere ekin diogu ibilaldiari (13:30). Gizonezkoak soinean beren koteka besterik ez daramatela dabilta han lanean. Orain arte gure norabidea hego mendebalde izan bada, orain hegoalderantz okertzen hasi



■ Danien ohitura omen da emakumeei atzamarrak moztea aita edo neba hiltzen zaienean

gara. Bidea asko estutu da belar luzeen artean eta laster dakusagu Baliem haran osoa. Ugem herria ere ikus daiteke Mugwi errekarren beste aldeko magalean. Ibarrez aldatzen ari gara.

1900 metroko garaieran gaina egin dugu (14:30). Bertan, beste gizontxo dani batekin elkartu gara. "Gizontxo" diogu 1,50 metroko garaiera baino ez baitu. Danien artean oraindik ez dugu gizon lodirik ikusi. Argalak baina oso gihartsuak dira: normala, haien dieta, hemengo orografia eta bizimodua ikusita. Zigarroa erre dugu berarekin. Gizon apala eta alaia dirudi. Esker onaren erakusgarri, gu laguntzea erabaki du geratzen zaigun gaurko bidean, beste pare bat ordu gora eta behera ibiliz, baina batez ere goraka. Gaurkoan, gainera, eguna bereziki beroa eta hezea da. Baliem ibaiaren ipar magalean goaz (hegoalderantz), daniek irekitako bide zabalean.

Wuserem (2150 m) herriko umeak oihuka datozkigu ongi etorria ematera. Beranduago helduak etorri dira. Arkuak eta geziak soinean daramatzaten bi gizonezko arku-tiroaren erakustaldia egin digute. Banbuz eginiko geziaren puntak itxura desberdinekoak direla ohartu gara, batzuek hiru punta ere dituztelarik. Diotenez, animalia bakoitzaren ehizarako gezi mota berezia erabili ohi dute. Ebakidurarik gabeko eta estilete itxurako puntak hiltzeko ohi dira, ebakidura txikiduna eta hiruhortzaren itxurakoa hegaziak harrapatzeko, ebakidurarik sakonak dituztenak gizonak hil edo zauritzeko daude eginak. Hauen puntari orkideazko haria lotzen zaio, zaurituak gezia ateratzen saiatzen denean, haria barruan geratu eta infekzioa sor dezan. Guri ere arku-tiroan saiakera egitea eskaini digute, akaso euren maisutasuna argi eta garbi erakusteko. Jasotako harreragatik esker ona erakusteko, gurekin afaltzera gonbidatu ditugu. Weake du izena afuldu ondoren kafea eta zigarro artean gurekin solasera etorri den dania. Irakasleari esker, oso solasaldi interesgarria izan dugu, danien hizkuntzaren eta indonesieraren arteko itzulpen lana egin baitu eta, aldi berean, Dixonek indonesieraren eta ingelesaren artekoa.

Hasieratik erakutsi diogu bere bizimoduarekiko jakingura. Bi emazte izan omen ditu. Lehendabizikoak ihes egin omen zion. Gizonezkoek aukeratzen dituzte emakumezkoak, baratzean lanean dihardutela. Ohitura da ezkontzean emaztearen familiari txerria ordainsari bezala ematea, baina emazteak ihes egiten badu, ordaindutakoa itzuli egin

■ Pukam herrira heltzeko izugarritzko aldapak igo behar izan genituen oihanean barna hezetasunagatik eta sargoriagatik itolarrian

ohi da. Hemen ondasunik preziatuena txerria da. Izatez, herri hauek bata bestearen aurka gudan ibili izatearen arrazoietako bat txerriaren lapurreta izan da, eta beste bat emakumeen lapurreta. Ondorioz, daniak oso oldarkorrek izan dira antzinatik gaur egun arte. Gainera, kanibalismoa praktikatzen zutela esan ohi da. Hori ere galdetu diogu, hots, ea aurkariak jan ote dituen. Bere esanetan antropofagiak balio sinbolikoa zuen bakarrik. Helburua hildakoaren memoria ondratu eta bere ausardia eta jakinduria bereganatzea zen. Eta horretarako zatitxo bat baino jaten ez zutela esan digu. Borrokek egun bakar bat edo asteak iraun zitzaizketen, aurkarietako bat zauritu edo hil arte. Behin gerrian gezi batekin zauritu zutela aitortu digu Weakek. Bakea txerriak ordainduta sinatzen omen zuten. Azkenengo guda handia 1998.ean izan zela esan digu. Etengabeko liskarren ondorioz, bere eskualdetik kanpo ibiltzeak zuen arriskuagatik, inguru hauetatik inoiz atera ez dela diosku. Gizon honen kontakizunak bat egiten du Peter Matthiesen esploratzaileak, 1960. urtean danien artean bizi ondoren, *Al pie de la montaña* liburuan jasotakoarekin. Istorio hauek danien beraien ahotik jasotzea espero ez genuenez, geure gonbidatuaren kontakizunak ahoa zabal-zabalik entzuten ditugu gaueko solasaldi osoan. Aldiz, Weakek gizon apala eta lotsatia dirudi eta ez gerrillari bihozgabea.

3. eguna: Wuserem-Weripok-Sonsuran-Pukam.

Eguneko ibilaldia aldapa gogorriarekin hasi dugu, hegoalderantz (8:30). Ordu erdi beranduago mendi mazelen banalerrora heldu garenean (2100 m) alaitasunerako denborarik ez dugu izan, begietara dugun ibarraren aurrez-aurreko hegala aurrekoa baino aski aldapsuagoa baita. Gainera, bidexendrak ez du sigi-saga bat ere egiten, zuzen doa goraka basoan barneratu arte. Zamaketarik, aldiz, kantuekin eta oihuekin hartu dute atsedena eta ikuspegia. Dixonek dioskunez, aurrez-aurre dugun ibarrean gertatu ziren duela hamar bat urte Wuseremeko eta Wasegalepeko danien arteko azken bataillak antzinako erara: arkuak, gezia eta lantzarekin. Aurretik adierazi dugun moduan, tribulurralde berrian sartuko gara berehala.

Ibarraren hegalek banatzen dituen Wulik errekarra jaitsi, zeharkatu eta aldapa gogorriarekin etsipenez ekin diogu eguzki izpien gupidarik gabe. Hiru ordu beranduago (11:30ean), oihanean sartu aurretik, bazkaltzeko atsedan bat hartu dugu, gaurko etaparen aldapak luze dira eta. Bitartean



■ Danien eta gure janzeraren artean desberdintasuna, XXI. mendearren eta neolitikoaren artekoa bezain handia da





■ Waseremerako bidean dani bat izan genuen bidean lagun



■ Oihanak erabat inguratzen gaitu 2400 metrotatik gora

zamaketariak inguruko loreak jasotzen dihardute, taldeko hiru neskei, Beleni, Iratxeri eta Milari, koroa bana oparitzeko. Bazkaldu ondoren aldapan gora jarraitu dugu, oraingoan hego ekialderantz desbideratuz. Lokatza da nagusi. Hasieran oinetakoak ez zikitzen saiatu garen arren, berehala etsi behar izan dugu, oinetakoak lohi likatsuan oso-osorik pulunpatzen baitira. Basoaren berdeak erabat inguratzen gaitu orain, baina giroaren hezetasunak eta sargoriak ito egiten gaitu gupida gabeko aldapan. Gorago, pandanus zuhaitzak basoko landaretza artean gailentzen diren aldian, langar-lainoak azala ezezik ilea eta arropa ere bustizen dizkigu. Ordu eta erdi beranduago, 2600 metrotara jo dugu gailurra, pandanusaren hosto puntazorrotzetatik euria jausten zaigula. Pozaren pozez, kantuari eta oihuari ekin diogu danieraz zamaketariekin batera.

Mendiaren hego isurialdean behera egin dugu, hego norabideari jarraituz. Hasieran pandanus baso itxian barna eta ondoren bidexka lohizatuta eta labainkorrean zehar, Pukam (2300 m) izeneko herriraino (15:30) heldu gara. Ibilaldi osoan zehar atentzioa eman digu zamaketariak oinutsik ibiltzeko duten erraztasunak: lokatzean ez dira labaintzen eta harri artean ez dute min keinurik egiten. Gure oinekin alderatuta, berenak motzagoak baina dezente zabalagoak dira, ordea guk ez bezala, oratzeko gaitasun handia dute, hatz lodiaren abduktore indartsuari esker. Gure mendiko oinetakoekin erraz labaintzen garen leku irristagarrietan haiek azkar mugitzen dira. Baina oso gizon jatorrak eta maitagarriak dira: zatirik labainkorrenetan –zubiak adibidez– gu laguntzeko ahalegin guztia egiten baitute.

Pukam herrian daniien lurraldearen mugan gaude. Haratago Yali etniakoak bizi dira. Pukamen emakume yaliek ezkondu ohi direla jakin izan dugu herriko buruzagiak egin digun harreran. Danien eta yalien artean desberdintasun handirik ez dago. Bizimodu eta ohitura antzekoak dituzte, gizonezkoen janzkeran izan ezik: yaliek koteka ez ezik, gona daramate ere. Ihi mehez (4 mm) egindako uztaierak bata bestearen gainean jarriz osatzen dute gona. Gariaren inguruan jarritako pneumatikoaren itxura du. Bidaia hau yalien lurraldean barrena ibiltzeko helburuarekin hasi genuen, baina horrek bidaia luzeagoa edota aski garestiagoa eskatzen zuen, yalien lurraldetik ateratzeko modurik azkarrena misiolarien hegazkin pribatuak (eta garestiak) baitira.

4. eguna: Pukam-Wasegalep-Wamerek.

Herriaren behealdeko etxetxo batean lo egin dugunez, Pukam behetik gora zeharkatu behar izan dugu bidaiari hasiera emateko (8:30). Biztanleen abegitasuna jaso dugu, gu agurtzera atera direla ikustean. Gaztetxoak kantuka eta algaraka gehitu zaizkigu taldera, eskoltaren

gisa, herria atzean utzi dugun arte, bart arratsean Pukamera heldu ginenean gu jasotzera agertu ziren bezala. Herria utzi eta berehala, baso heze eta tropikalean sartu gara eta ordubetez lokaztutako bidexkari jarraituz mendebalderantz aldapan gora egin dugu aurrera. 10:00etan gailurra jotzean (2450 m), oihanaren zulo batetik paisaiaren izaera primitiboa eta ukitu gabekoa ikusteko aukera dugu: mendiak, ibarrak eta arroiak oihanez estalita, baita goizaldeko lainoak ere, gaueko euriak nahiz freskotasunak eraginda, hara eta hona, gora eta behera, ibarrean eta mendí tontorretan. Ikusmirak gutxi irauñ du, berehala basoan murgildu baikara bidezidor estu, aldapatsu, labainkor eta lokaztuan behera. Errekabidean eta urjauzien aldamenetik ere ibili gara, 11:30ean basotik irten garen arte, uneoro mendebaldeko norabideari jarraiki. Bidean adineko bi gizon aurkitu ditugu, hauek ere txikiak eta argalak baina oso gihartsuak: gorpuzkerarik onena oihanean ehiztari eta biltzaile gisa bizirauteko. Batatan oinarritutako dietan proteina gutxi jaten dutenez, eta etxeko txerriak sakratuak izatean, egun garrantzitsuenetan bakarrik hiltzen dituztenez, basora etortzen dira ehizan aritzera. Arkua eta gezia aldameneko enborren ondoan utzita, liana moduko haria harrizko haizkoraz ebakitzen dihardute.

Eguzkiak oraindik ez ditu goizaldeko laino estratoak zulatuta Waima (2200 m) izeneko herritik pasatu garenean. Halaber, daniien etxolen teilatuen lasto artetik oraindik kea irteten da. Handik ordu erdira (12:10) Wasegalep herrira heldu gara (2100 m). Hemen bazkalduta eta atsendin hartu dugu. Eta batez ere, ondo hidratatu gara. Kantinploran darماغun ura goizean-goiz irakindakoa den arren, ez da erabat gardena eta gustu desatsegina du erabat. Hortaz, bazkalorduan kafea eta tea franko edaten ditugu.

13:30ean eguzkiaren berotasunarekin batera Wasegalep utzi eta Baliem ibaiaren bideraino 900 metroko desnibela jaitsi dugu ordubetean. Bidea hain da aldapatsua, ezen paisaiari so egiteko geratu beharra baitago. Ibaiaren beste aldeko magalaren aldapa ere sekulakoa da: amildegia dirudi. Paisaiarekiko lilurari, gizon eta emakume daniiek orografia honetan lurriari fruitua ateratzeko duten trebetasunarekiko mirespena gehitzen zaio begi kolpe bakoitzean. Belaunak eta izterrak minbera ditugula, zubi eseki zaharra aurkitu dugu haserre doan Baliem ibaiaren gainean. Ura ez ezik, haizea ere indarrez mugitzen da. Honek zubia alde batera eta bestera kulunkatzen du eta Dixonen ohiko lasaitasun eta irribarrea desagertu egin dira. Baita, noski, geurea ere, zubi honetan turista japoniar batek bizi galdu zuela jakinda. Espedizio osoa ilaran jarri gara zubiaren sarreran eta banan-banan pasatzen hasi

■ Emakumeak zuntzezko gona baino ez dute janzen. Gerritik gora aldez biluzik doaz. bizkarrean sare itxurako zakua daramate bekokitik esekita, baratzean jasotako batatak eta bestelakoak eramateko



gara. Tarteka eroritako oholen hutsuneetatik ibaiaren amorrua ikustean, ohol zaharrak zapaldu gabe funambulistik bezala ibiltzea da zuhurrena: erdiko kablean oinak bata bestearen atzean jarri eta eskuekin aldameneko kableei gogor oratu. Zeharkatzeko zain gaudenon bihotz taupadak bat-batean azkartu dira haize bolada batek Iratxe zubiaren erdian harrapatu duenean. Odol hotzez eutsi dio zubiaren kulunkari, ordea. Beranduago, ia espedizio guztiak zeharkatu duenean, Elanius zamaketariak bigarren erasoia jaso du eta esku batean gitarra eramategatik ia oreka galdu ere. Bat-batean Dixon korrika sartu da zabuka dabilen zubian, kableari ere eutsi gabe, Elanius laguntzera. Oilo-ipurdia jarri zaigu Dixonen elkartasunaren erakustaldi honetan. Zamaketariak kantuka eta oihuka eskertu diote. Ibilaldiaren hasieratik antzeman dugu zamaketariak Dixoni errespetu handia diotela, baina Dixonek berak ere begirunez tratatzen ditu.

Estualdiaren ondoren iparraldera biratu dugu, mendi magalean landaretza artean ezkutuko bidexkari jarraiki. Baliem ibaiaren aldamenetik goaz aldapa askorik gabe. Walsaman atsedenean dauden bi gizon dani agurtu ditugu. Bata adinekora da eta bostekoa eskaini dio Asierrri. Eskua luzatu dionean, hark ondo eutsi dio eta adeitsuki belauniko jarrarazi du, zerbait esan nahian. Gizona itsua dela oharatu gara orduan. Bere berbaldia minutu batzuek luzatu da, adi-adi errespetu handiz entzun diogu. Zer esan ote digu?

Beranduago enbor labainkorrez eraikitako zubi bat zeharkatu dugu, ipar-mendebaldera irekitzen den ibarrean sartu aurretik. Eguneke azken aldapak Wamerek (1500 m) herriraino eraman gaitu (16:00).

5. eguna: Wamerek-Tagma-Wanem-Iwiluk.

Aldapan gora hasi dugu eguna Tagma (1900 m) izeneko herriraino. Gaur lehen aldiz ikusi ditugu hegazkinen lurreratze pista bat eta eliza bat. Bai, biak batera aipatu ditugu, lurreratze pistak kristautasuna zabaltzera etorri diren misiolariak baitira. Papua misiolariak beteta dagoen herrialdea da. Bai hauek eta bai Indonesiako gobernuak ari dira daniak eta gainontzeko etnien milaka urteko bizimodua suntsitzen. Goraka doan gune turistikoa izateaz gain, Papua baliabide naturalen iturri agorrezina da gaur egun, hala oihan tropikaleko egurraren nola meatokien esplotazioari dagokionez. Gainera, Indonesia



■ *Enbor bakarrek zubi labainkor asko zeharkatu behar izan dugu ur lasterren gainetik*

■ *Wasegalep eta Wamerek arteko zubi esekia zeharkatzen. Horren hondatua dago, ezen funambulistik bezala ibiltzea baita zuhurrena: erdiko kablean oinak bata bestearen atzean jarri eta eskuekin aldameneko kableei gogor oratu*

munduko herrialderik populatuena da. Batez ere Javako uhartera (populazioaren erdia lurraldearen %7an bizi da), eta mendebaldeko Papua migrazioa jasotzeko lurralde zabal egokia da. Eraso demografiko honek papuarren haserre eragin eta Papuaren independentziaren aldeko mugimendua sorrarazi zuen 1965ean. Gaur egun oraindik gogotsu eusten diete beren aldarrikapenei. Horrela adierazi digute bai Dixonek eta bai ezagutu ditugun zenbait irakaslek. Gure presentziak ere ziurrenik ez die mesede handirik egingo.

Tagma herria umeen eskuetatik oratuta zeharkatu ondoren, oihanean sartu gara berriz, ipar-mendebaldeko norabideari jarraiki. 2170 metrotara Wanem herrixkatik pasatu gara (11:00) eta handik ordu erdira Wanem lepoa (2300 m) gainditu dugu. Hemendik aurrera gora eta behera ibili gara, baso eta baratze artean, errekatxo baten ondoan bazkaltzera gelditu garen arte (12:35). Emakume talde batekin elkartu gara hemen. Emakume dani guztiak bezala bizkarrean sare itxurako zakua daramate bekokitik esekita, baratzean jasotako batatak eta bestelakoak eramateko. Haurra ere bertan eraman ohi dute ama gazteek. Uzta biltze lanean ari direnean ere ez dute sareak soinetik kentzen.

Mendiaren magal bihurrituaren ibarbideetan barrena, banalerrotik kanpo ibiliz bi ordu beranduago Iwiluk (2270 m) herrian bukatu dugu gaurko etapa (15:30). Herritxoak xarma berezia du. Banalerroaren irtengune batean kokatua, banbuz eraikitako harresi batek biltzen ditu etxola guztiak. Kokagune honek gainera Baliem ibarraren ikuspegi paregabea eskaintzen dio.

Oraingoan ere gaztetxoak etorri zaizkigu atera ongiatorria ematera, baina gaurkoan gertakizunik bitxiarena, elizatzxoaren aurreko zelaian herritarren eta zamaketarien artean antolatu den futbol partida izan da. Mikel, futbolzale amorratua izanik, zamaketarien ekipoa jokatzeke eskaini du bere burua. Barregarria izan da Mikel mendiko botekin baloiaren atzean korrika ikustea, gainontzeko jokalariz guztiak oinutsik ibili direnean. Gainera, daniak eta laniak sasoi batean daudela esan digu Mikelek, haien erritmoa jarraitzea neketsua egin zaiolarik.

Gaurko gaua ibilaldiaren azkena izanda, zamaketariak Dabe izeneko festa prestatu digute. Laniek emaztea aurkitzeko egin ohi duten jaialdia da. Kantuan dihardutela, gustuko duten emakumeari oparixtoa eskaintzen diote. Ez badu onartzen, dantzaldian lekuz aldatu behar du, beste gizon batek aukera izan dezan. Onartuz gero, aldez, ezkundu egin ohi dira. Gaurko festan, kantu berberak kantatuz zamaketari bakoitzak oroigarri bana egin digu: soinean daramaten eskumuturrekoak eta idunekoa. Benetako ezustekoa izan da.



6. eguna: Iwiluk-Wama-Kurima.

Azken etapa motza da. Ozta-ozta bi orduz ibili gara etengabe aldapan beheara Iwiluk herritik Kurimaraino (1700 m), beti ere ipar-ipar-mendebalderantz. Wama izeneko herrixka zeharkatu dugu eta beranduago uholdeek errestan eramandako harriek eta lurra sortutako bide antzuan zehar ibili gara. Azkenik, baso txiki bat zeharkatu ondoren, Kurimarako errepidera heldu gara, neolitikoan barrena ibilaldia hasi genuen abiapuntura, alegia. Asfaltoa ikustean, aro horretatik atera eta XXI. mendera itzuli garea ohartzen hasi gara. Atzoko kantuak lagun bukatu dugu ibilaldia zamaketariekin azken bazkaria konpartituz.

Begi negartsuok aste honetan ikusi, bizi eta ikasitakoak betiko irauaraztea nahi dugu, Dani, Yali, Lani eta Papuako beste tribuen etorkizuna itxaropentsua ez dela jakitun izanik ere. 1954az aurreko egoerara bueltatzea ezinezkoa da danientzat. Gure zibilizazio "modernoa" naturarekin orekan bizi izaten konformatu diren pertsona hauek indultatuko ote ditu? Gu geu ere xahutzen gaituen geure garai harropuzak, bizimodu honekin ere akabatuko du. Eta ondorioz, geure eboluzioa ulertzeko eta gogoratzeko erreferentzia-puntua ere galduko dugu. Suerte ona, lagunak! □

Txerri-jana

DANIEK abere bakarra dute: txerria. Beronek balio handia izaten du gizarte honetan, aberastasuna eta estatus sozialaren adierazle delako. Horregatik ez da besterik gabe hiltzen eta jaten. Egun seinalatueta eta zeremonia berezi batean zehar hil eta jaten dute txerria. Jiwika herrixkan txerri-bazkari batean parte hartzeko aukera izan genuen. Hemen etxolak laukiluze bat osatzen eraikita daude, erdigunea herritarren jardueretarako erabiltzen delarik, adibidez txerriaren hilketara eta bazkarirako. Zeremoniari hasiera eman aurretik, aurpegiak eta bularrak margotuta, herriko emakume guztiek (hogei bat) kantuan egin dute. Kolore nagusia zuria den arren, horiz margotutakoak ere ikusi ditugu. Motiboak, aldiz, bata bestearekiko oso desberdinak dira. Kantuen ondoren, bi gizon txerria hanketatik oratu eta metro eta erdiko garaieraraino jaso dute, batek aurrekoetatik tiraka eta besteak atzekoetatik. Hirugarren gizon batek hiru bat metroko distantziatik babesik ez duen txerriari tiro egin dio biriketara arku jaurtikitako geziarekin. Berehala txerria lurlean utzi dute, garrasika eta ihes egin nahian odolgabatu eta ito dadin. Bitartean, beste gizon batzuek antzinako erara sua egiten dute, hots, belar hari bat bi adarren artean igurtziz sua sortu arte. Berehala sutzar bat egiten dute, bertan ia metro erdiko diametroa duten harriak berotzeko. Txerriaren azala ere bertan erre dute. Gero animalia lurlean jarri eta zatitu egiten dute, aizto gisara banbu zahaitzaren hostoak erabiliz. Zatorik gogorrenak ebakitzeko, aldiz, harrizko aizkorak erabiltzen dituzte. Txerriaren atal guztiak jaten dira hemen.

Bitartean, emakumeek metro bateko sakonera duen zulo batean, hosto hezeak sartzen ari dira, baina hosto artean haragi zatiak eta batatak jartzen dituztela ohartu gara. Harriak ondo berotu direnean, itxura bereziko enbor zatiekin harri beroak sutatik atera eta zulora botatzeari ekin diote gizonak eta emakumeek. Harriak bota ahala, gainontzeko emakumeek hosto gehiago eta haragi eta batata gehiago sartzen dituzte zuloan. Azkar ari dira lanean, harrien berotasunak hostoen ura lurruntzen hasi aurretik. Ikusten ari gara lapiko naturala baino ez da, hostoen uraren lurrunketan elikagaiak egosten baitira.

Hogei bat minuturen bueltan, lurrun kopurua jaitsi denean, betetako zuloa husten hasi dira: hostoak eta harriak alde batera eta egositako haragia eta batatak bestera. Gizezkoek haragia zaitu eta emakumeekin konpartitzen dute, eta emakumeek batatak gizezkoekin konpartitzen dituzte. Horrela, emakumeen taldeak alde batetik eta gizezkoenak bestetik, txerri-janari ekin diote denek.



■ Emakumeek metro bateko sakonera duen zulo batean, hosto hezeak sartzen ari dira eta bertara harri beroak botatzen dira. Harriaren beroarekin hostoen ura lurruntzerakoan, haragia eta berdurak egosi egiten dira



■ Harriak ondo berotu direnean, itxura bereziko enbor zatiekin harri beroak sutatik atera eta zulora botatzeari ekin diote gizonak eta emakumeek

■ Arkuaz eta geziaz hiltzen dute zeremoniako txerria



DATU PRAKTIKOAK

NOLA JOAN: Euskal Herritik Indonesiara hegazkinez joateko bide asko daude. Ondoren Indonesiako hiriburuetakoa batetik Papuako Jayapura hiriraino hegaldi bat eta jarraian Wamenara beste bat egin behar dira, Merpati edo Trigana Air Service konpainiekin. Baliem ibarrean zehar ibiltzeko *surat jalan* izeneko baimena ordaindu behar da Jayapuraren.

NOIZ JOAN: Baliem ibarrean ibiltzeko garairik egokiena martxo eta abuztuaren artekoa da, urteko sasoirik lehorrena baita. Hala ere, euria jasateko prest joan behar da, batez beste hileko hamasei egunetan euria egin ohi du eta. Egunez tenperaturak 26° C-raino heltzen badira ere, gaeuz arras hozten du 12° C-raino.

NON JAN ETA LO EGIN: Wamena Indonesiako herririk garestiena da, bertara gauza guztiak hegazkinez garraiartzen baitira. Hotel eta jatetxe batzuk baditu eta Baliem Pilamo da hotel onenetakoa. Bankua

ere badu, aurrekoaren ondoan. Danien herrixketan apaizaren eta maisuaren etxean ohea eskaini ohi digute mendebaldeko ibiltarior.

OSASUN KONTUAK: Papua osoan paludismoa harrapatzeko arriskua oso handia den arren, Baliem ibarreko mendietan altueragatik arriskua oso txikia da. Egokiena Atzerriako Txertaketa Zentro batean galdetzea da. Hala ere, janariarekin eta urarekin kontu handiz ibili behar da. Ura potabilizatu egin behar da.

MAPAK: Baliem haranaren mapa bakarra dago (Tourist map), Wamenako hoteletan salgai. Oso orokorra da eta ez da egokia trekkinga norberaren kabuz egiteko.

GEHIAGO JAKITEKO: Peter Matthiesen: *Al Pie de la Montaña: Una crónica de dos temporadas en la Nueva Guinea de la Edad de Piedra*, Tierra Incognita, Palma de Mallorca, 2000.

ESPEDIZIOAN PARTE HARTUTAKOAK: Belen Santiago, Mikel Barriuso, Iratxe Garay, Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal.